

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GERNIKA-LUMOKO UDALAREN 2016-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den irailaren 27an Gernika-Lumoko Udalaren eta tokiko lau erakunde autonomoen (Kultur Etxea, Kirol Patronatua, Lanbide Ekimenetarako Zentroa eta Aita Luis Villasante Udal Euskaltegia) ekonomia-finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2016ko ekitaldikoa.

2016ko ekitaldiko urteko kontuei dagokienez, HKEEk aldeko iritzia plazaratu du, nahiz kontularitzako doiketak azaleratu diren, Udalaren eta Kultur Etxea toki erakunde autonomoaren diruzaintza geldikinak murriztuko lituzketenak, hurrenez hurren, 1.643 eta 115 mila euroan. Halaber, ez da ondoriorik ematerik izan Udalaren eta erakunde autonomoen balantzeko aktibo ez arrunteko saldoen gainean.

HKEEk fiskalizazio-gai izan duen Kontu Orokorraren egoera finantzarioa aztertu du. Gastu arruntek gora egin izanaren ondorioz, aurrezki garbia aurreko bi ekitaldietako baino txikiagoa izan da. Zorpetzeak behera egin izanak Gernikako Udalak EAeko Udalen batez bestean kokatzen du.

Honezaz guztiaz gain, Udalaren Kontu Hartzaitzak jaulkitako txostenari jarraikiz, 2016an bete dira aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun helburuak eta gastuaren araua.

Udalak zein erakunde autonomoek zuzentasunez bete dute euren ekonomia-finantza jarduera arautzen duen legezko arautegia 2016ko ekitaldian, nahiz akatsak azaleratu diren Langileen atalean (produktibitate-osagarria ordaindu da, gerora epai bidez baliogabetutakoa) eta Administrazioako kontratazioaren atalean (5 kontratu dagokion prozedura irekia saihestuta esleitu dira eta beste 4 kontratu, amaiera dataz haratago luzatu dira).